



## Felix Aranzabal, Angiozarreko itsua

**B**este jai askoren ondoren, **Sanpedruak** be laister datozela-eta, Torreauzoko erromerixetako soiñujole klasiko bat gogoratu gura dogu gaurkuan: **Felix Aranzabal, Angiozarreko itsua**. Izan be, hogeita bost urte baiño gehixaguan Oñatiko auzo horretako erromerixak animaitten jardundako musiko bikain hau aurtan, martixaren lauan, hil xaku Eibarren 86 urterekin.

Angiozarreko Aguleta baserrixan jaixo eta, oraindiok mutikua zala, itsutu egin zan kaza-istripu baten ondorixoz. Gaztetan ikasi eben akordeioa jotan eta hogeita bost bat urterekin ekarri euen Sanpedrotan Oñatira. Torreko **Deograzias Guridi**, ordurako Bergaran bizi zana, eta **Plaxido** haren anaia fan ziran 1945 inguruan Angiozarrera soiñujole barrixaren billa. Horixe izan ei zan, gaiñera, erromerixetara soiñujole moduan egin eben lehenengo urteixeria. Harrezkero, hartu-emun luzia eta sakona euki eben Felixek sanpedrotarrekin, ezkondu be auzo horretako Azkonitza baserriko **Angeles Ugarterekin** egin zalako.

Gerora, urtero-urtero, hutsik egin barik, etorten zan Angiozarreko semia San Pedro egunian eta bixamonian izatan ziran ospakizunetako musiko nagusi lez. Erromerixan akordeioa ez ezik, ikusitta nago ni meza nagusixan armoniuma be jotan. Baiña ezin ahaztu, batez be, meza osteko luntxian emuten eben kontziertu moduko joaldi ederra. Aurtan, Mozarten mendeurena dan honegan, konturatu naiz Wolfgang Amadeusen musika zoragarrixaren barri lehenengo aldiz ume-umetan San Pedroko zelaixan izango gebela seguruenik, Felixek hain egoki interpretaitten eben **Martxa turkua** entzunaz. Baiña halako piezak in batera, zenbat euskerazko kanta eta bertso-sorta luze eskintan oskun! Orduan, beste iñun nekez entzun zeikie in Xenpelar, Iparragirre, Otaño eta abarren bertsuak.

Argazkixaren aurreko aldian agiri dira **Felix Aranzabal** soiñujolia eta **Felipe Vitoria** jazbanista mondragnetarra. Azkenengo hau be urte askuan etorri zan San Pedrorra. Iñoiz haren anaiak be, Jexux Vitoriak, jardun eben zeregin horretan, baiña gehixenian Felipe izatan zan angiozartarren laguntzaillia. Atzeko mutikuak, berriz, ezkerretik eskumara honeik dira: **Peli** eta **Fernando Aranzabal** cibartarrak, Felixen semiak, **Jexux Egaña**, Garibai auzoko Zubiate Txikiñekua, eta **Felix Erostarbe**, San Pedroko kalejakua. Fotografixia San Pedroko zelaixan atarata dago, jakiña, eta 50 bat urte eukiko dittu.

J. E.

Fotografixia Udaleko Argazki-fonduan topau dogu. Argibidiak, berriz, Felix Erostarbe, Joxe Guridi, Enrike Guridi, Joxe Antonio Guridi eta Beatriz Irizarrek eskuratu doskue. Milla esker danoi!